

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Goiko izokin-eremuan amuarrainak harrapatzeko baimenak emango dira apirilaren 18tik aurrera

2016an Nafarroako arrantza zuzenduko duen berariazko araudia onartu da

Viernes, 01 de abril de 2016

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak 2016an Nafarroako arrantza zuzenduko duen [berariazko araudia](#) onartu du, espezie exotiko inbaditzailearen populazioa kontrolatzeko neurri zehatzak barne. [Liburuxka batean](#) jasotako araudi horretan, epe baliodun bat ezartzen da maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte goiko izokin-eremuan amuarraina arrantatzeko, eta gogorarazten da, arrantza-lizentziaz gain, beharrezkoa dela eguneroko baimen berezi bat izatea (apirilaren 18tik aurrera emango da).

Izokinari dagokionez, Bidasoa ibaiko izokinetarako tartean baino ezingo da arrantzatu maiatzaren 1etik aurrera, harik eta 81. alea harrapatzen den arte. Arrantatzeko baimendutako kopurura heltzen ez bada, uztailaren 31n izokina arrantatzeko epe balioduna amaituko da. Izokin-eremu mistoko arrantzarako epe balioduna apirilaren 1etik uztailaren 31ra luzatuko da.

Según se establece en la normativa, el cupo establecido en la región salmonícola superior es de dos truchas extraídas por pescador y día. El número de permisos por pescador y temporada será de dos en cualquier modalidad, y se podrá optar a dos permisos adicionales únicamente para la modalidad de captura y suelta. El número de permisos disponible para cada cuenca es el siguiente: Baztan-Bidasoa, 5.376 permisos; Oría-Urumea, 4.667 permisos; Urederra, 127 permisos (71 en el coto natural de Zudaire), y Arga-Ultzama, 684 permisos (284 en el coto natural de Eugi).

Baimenen izapidea 012 telefonoaren bidez (948 012012 Nafarroatik kanpo deituta) egin daiteke, eta Internetez (www.permisopesca.navarra.es).

Arrantzaleak bere jardunaldien emaitzen berri eman beharko dio Departamentuari, Interneten dauden inkestak betez edo baimenak behar bezala beteta postaz itzulita. Erauzteko arrantza egiten duten arrantzaleek ibaiko txartel bat nahitaez eraman beharko dute, eta bertan, zenbat amuarrain arrantzatu duten jarri beharko dute. Txartel hori [ehiza eta arrantzaren webgune](#)an topa daiteke.

Izokinari dagokionez, arrantza eta egun bakoitzeko izokin bat hartu daiteke gehienez.

Izokin-eremu mistoko kupoa arrantzale eta egun bakoitzeko hiru

amurrain dira, gehienez ere.

Espezie exotiko inbaditzaileen aleei dagokienez, arrantzatzen diren unean sakrifikatu beharko direla adierazi da, hedatu ez daitezten. Arau horrek, lutxo, perka amerikar, arrain katu edo siluruari eragiten die, besteak beste.

Berrikuntzak

Iragan martxoaren 1ean, Nafarroako Gobernuak hildako amurrainaren arrantza gehiago mugatzea proposatu zuen 2016 sasoirako, bai eta hil gabeko arrantza-modalitatea sustatzeko bere asmoa ere (harrapatu eta askatu) zaleen artean, haur eta gazteen artean bereziki. Aurreko denboraldietako estatistikaren arabera, Nafarroako arrantzaleen % 60k erauzteko arrantza praktikatzen du eta % 40k harrapatu eta askatzearena, eta Gobernuak balantza horri buelta eman nahi dio sustapen-neurrien bidez.

Nafarroako Gobernuak egindako proposamenak amurrainen baimenen proportzioari eusten dio (erauzteko modalitatea). Debekualdiak jarraitzen du Ega, Arakil-Larraun, Ultzama, Irati-Erro eta Eska-Salazar ibaietako arroetan, ur horietan amurrain gutxi baitaude; Gipuzkoarekin muga egiten duen Leizaran nahiz Añarbeko zatietan ere debekualdiak daude (Añarbeko urtegiko presatik gora). Gainera, harrapatu eta askatzeko arrantzarako kirol gunek berriak sortu dira Araxes eta Urumea ibaietan, eta Ezkurra ibaiaren zati bati eusten zaio arrantza-prestakuntzako eskolarako (Donezteben, Ezkurra eta Ezpelura ibaietako zubien arteko 700 metro dira, Bidasoa ibai-ahora arte). Eta 16 urtetik beherakoek baimenik gabe arrantzatu ahalko dute hiriguneetan, harrapatu eta askatzeko modalitatean, irekita geratzen diren arroetan.